

{ koaderno } Erika LAGOMA POMBAR

Euskara burbuila?

Euskaraz ulertu, hitz egin, irakurri edota idazteko ahalmena duten biztanleen kopurua asko hazi da azken lau hamarkadetan. Aldiz, EAEn lehen hizkuntza euskara dutenen kopurua ez da apenas igo. Hazkunde ia osoa lehen hizkuntza izan ez duten euskaldunen ekarpenari zor zaio. Hamarkada hauetan euskalduntzeko gune nagusia bat izan da: eskola. Berau lehen mailako sozializazio eragilea da familia eta haren ingurunearen ondoren.

Txepetxek, hizkuntza gutxituen berreskurapen prozesuari buruzko teoriarik, hizkuntzaren jabekuntzan bide aipatzen ditu: naturala (erabileratik sakontzeko motibaziora) eta kulturala (motibaziotik erabilerara). Euskara bigarren hizkuntza gisa eskolan ikasi dutenek, aldiz, beste abiapuntu bat dute; hasierako motibazioa ez da norberarena, gurasoena, sistemarena, soziala baizik. Euskara erabileratik ikasiko dute, baina erabilera murriztua izango da, gehienbat eskolara mugatutakoa, akademikoa. Hori da ikasle askoren errealitatea. Baita irakasle askorena ere. Iratxe Retolazaren hitzak dira honako

hauek: «Euskal kulturaren transmisioaren etena hain sakona izan da, ezen hezkuntzan ere transmisio lan hori egingo duenak ez baitu horretarako gaitasunik».

Iñaki Iurrebasori irakurri diot geldotzearen aroa izan dela 2001etik 2021erakoa. Sei ardatz nagusi aurkezten ditu hizkuntzen osasun egoera aztertzeko. Nik hizkuntza atxikimenduari, gaitasunari eta erabilerari erreparatu nahi diet. Irakasle jardun dut azken 10 urteotan Batxilergoan eta DBHn, eta bilakaera argia da: hizkuntza atxikimendua apaltzen joan da, Retolazak aipatzen duen euskal kulturaren eten hori nabarmena, eta ikasleek gero eta okerrago irakurtzen, idazten eta hitz egiten dute. Arrazoiak hamaika izango dira, eta hausnarketa sakona beharko dutenak. Durangaldeko nire egunerokoaren lagin orokortua da hau. Geleraren aroan ez ote garen sartzen ari.

Ez dugu hizkuntza atxikimendua indartzen asmatu. Euskara zaindu behar dugun altxorra delakoarenak ez du funtzionatzen. Ez dute mamurik ikusten. Korrikan parte hartu dutela espainolez konta diezaiekete ikas-kideei.

Euskal kultura tradizioa da haientzat. Egun euskaraz sortzen dena gutxi ezagutzen dute eta, oro har, ez zaie erakargarri egiten. Apenas lantzen da hizkuntzaren dimentsio sortzailea gela barruan. Haien gazte identitatearekin komunean ezer gutxi duten kultur erreferentzien hartzaile huts bihurtzen ditugu gehiegitan. Miren Artetxek Iparraldeko bertso eskolen esperientzian oinarritutako bere tesian ondorioztatu duenez, «gazte identitatea euskaraz garatu ahal izateak ahalbidetzen die gazte izatea euskaraz». Aho-korapilo arrunt argigarria.

Olatu bat bezala sartu da gaztelania gelan. Kanpo espaziotik karrajuetara egin du salto, eta karrajuetatik gelara

Gaitasuna nabarmenki kaltetu da, ahozkoa zein idatzizkoa. Lexiko murrizta dute, ez da bakarrik gramatika eta sintaxia guztiz ez menperatzea. Azken ikerketek erakusten dutenez, euskararen erabilera oraindik ere oso lotuta dago hiru faktore hauekin: etxeko hizkuntza euskara izatea, euskaraz ongi moldatzea eta euskaraz hitz egiteko aukera izatea. Olatu bat bezala sartu da gaztelania gelan. Kanpo espaziotik karrajuetara egin du salto, eta karrajuetatik gelara.

Hizkuntzaren dimentsio sozial eta kulturala ahan-tzi dugu irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan, burbuila batean sartu dugu, eta ezinbestekoa da horietan kulturaren ardatza txertatzea. Hizkuntza kulturaren baitako elementua da, garrantzi handikoa, baina ez isolatua eta hori argi izan behar dugu burbuila leher-tuko ez bada. •